

ek!


eta kitto!
euskaraz elkartea

2024ko apirilak 26 · 1310 zenbakia

EREIN ETA JASO HAZTEN GOAZ



PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BARNIE DISEINUA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

www.urrategiinteriorismo.com
Ekin Arropaketa 37 Arropaketa Lantza 9

MGEP

IKERKETA ZENTROA ELIZENDEKON
ZUZENAKO HEZIKETA ZENTROA



AITOR PEREDA Donostian, Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa (FMPP) goi mailako zikloa Mundrago Goi Eskola Politeknikoan (MCEPE) egiten ari dena eta DUNE, formazioa FAGOR AUTOMATION enpresan, aurkitu beste goi mailako heziketa zikloa ikasita ere, Fabrikazio mekanikoko diseinua.

Aitor Pereda Loubet, donostiarra nahi eta 22 urte dituz. Batsaleroa teknologikoa egin ondoren goi mailako heziketa zikloa ikasketak egitza orabaki nuen. **Ikasketak dena praktikan jartzen ditako hasieratik eta formak ikasketan dena gehiago barerazten ditako.**

MCEPE aukeratu nuen, ate irekietako jardunaldiaren bidez nuen gurasu zintzabako, dagoen ekipamendua, enketatzen metodologiak, praktikak kopurua eta baita egokiko estatusa ere eskaintzen zirelako.

Fabrikazio mekanikoko diseinua erakartzen ninduen eta Goi Mailako Heziketa Zikloa egin nuen MCEPEn. Diseinuko zikloa bukatu ondoren **FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA** egitza erabaki nuen, ziklo bati

#LanerakoGertu

ezagunak direlako eta Diseinabuzkara nola fabrikatzen den ikasiko ikasketak.

Klasako gurasoak da, **kalde beldu da eta jatorri desberdineko ikasleak** dituz eta ikasketak ere gutxi adituak.

Ajuria beste ikasleak prozesu oso praktikoa da, nola aituko ekipamenduk erabili ditugu bai talerlean eta baita laborategietan. Bi luma hauetan zehar **errotik desberdinak** egin ditugu, gero enpresan lanago ditugun antzekoak, adibidez, lehenengo mailako errotik baxen Arretuabatetako enpresa baita produktu bat landu genuen klasan, gero berretuko enpresan azokatu genuen eta bukatu produktio nola fabrikatzen zen ikasketak auzoan lan genuen. Oro itxerigarria izan zen.

DUALA *Fagor Automation* en egiten ari nait, sarekoak kaltetu departamenduan, makinetan ezabitzen diren elementu asko gero soluzioak pasatzen dira eta gaur enpresan ditugu onerak. **DUALA**, ikasi eta lana eginen ari berari, oso esperientzia garrantzitsua da asko abertoki dituz ikasketak eta gainera zure kumuluzioaren lan esperientzia bezala jartzen dezakezu.

Behin fabrikazio ziklo hau bukatu ondoren lan mundara joatea nahiko nuke nire bizi leku inguruan, nahiz eta irakita nago soluzioan aukeratarako, **bi zikloak egin eta gero ordu prestoria rogeada uzte ditz.**

ATE IREKIAK: Maiatzak 4, 11:00

Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704



Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.es

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Dantzaren Nazioarteko Eguna izango da hilaren 29an. Horrela, gaur arratsaldean herriko dantza-talde eta -eskolak kalera irtengo dira herriko gune ezberdinetan dantza egitera. Gero, 20:30ean, erromeria egongo da Laket taldearen eskutik.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ainara Lavado

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irtizien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Maiatzaren 1ean badago alternatiba!

Hauteskunde kanpaina pasa berri den honetan, non politikari profesionalai ahoa promesez betetzen zaien, beharrezkoa zaigu instituzioen alternatiba faltsua salatzea.

Krisialdi ekonomikoaren garaiotan oligarkiak finantzazio iturria itxi die estatuei eta honek zerbitzu publikoen desmantelamendua eragin du, bete betean.

Auzi honi aterabidea emateko alderdi instituzionalak alternatiba erreal bezela aurkeztu badira ere, errealitatea bestelakoa da. Osasun aurrekontua handitu dela dioten arren, inflazioa dela medio gastu erreala jetsi egin da; adibidez. lehen arretako gastua %10.

Etxebizitzari dagokionez, PSOE eta EH Bildu alderdiek etxegabetzen moratoria 2025. urterarte luzatzea adostu zuten arren, jada 3.000 etxegabetze exekutatu dira EAEn, ia 3 egunean.

Azkenik, duela bi urte lan erreforma berria ezarri arren, Espainiako behin-behinekotasun tasak Europako batz bestekoa gainditzen jarraitzen du.

Egoera errotik aldatzeko beraz, beharrezkoa zaigu intuzioen fartsatik kanpo antolatzea, gizartearen gehiegoren pobretzeaz aberasten ari diren bankari eta enpresarien irabaziak expropiatu eta baliabide guztiak langileon kontrolpean jartzea.

Maiatzaren lehenan Bilboko kaleak hartuko ditugu alternatiba erreal badagoela adierazteko: langile boterearen eraikuntza.

Leire Garate (Deba Bailerako Kontseilu Sozialista)

OHARRA:

Atal honetan idatziaren bertsio laburra kaleratu dugu.

Testua osorik irakurtzeko: www.etakitto.eus.

AYA enpresaren hondoratzea

Aguirre y Aranzabal (AYA) enpresan eta Alex Aranzabal gerentearekin gertatutakoa argitu nahi dugu. Zuzendaritza berria sartu zenetik, AYAK izugarritzko gainbehera izan du, eta enpresa hondoratu egin da. Azken urteotan, gizarte segurantzaren eta sindikatuaren salaketak jaso ditu, hainbat arrazoiengatik: ERTE egoeran dauden eta jubilatutako langileak izatea lanean, aurkeztu gabeko kontuak, armen legez kanpoko inportazioa, eta abar luze bat.

2023ko udan, Alex Aranzabalek (AYAKo CEO) aldebakarrez eta diktatorialki ezarritako erabakiaren ondoren, fikziozko bi enpresa sortu zituen, 10 langileak hiru enpresa ezberdinetan banatuz, eta lan-eskubideak murriztuz. Langile guztiak aho batez erabaki zuten lanuzteak egitea, lan-gatazka konpontzeko akordioa helburu zutela. Baina Aranzabalek langile eta sindikatuetikiko komunikazio guztiak eten zituen, jarrera prepotentearekin eta inolako negoziatorik onartu gabe.

2023ko uztailean berriz ahalegindu ginen berarekin hitz egiten, baina negoziatzeari ezezko biribila eman zion. Egoera jasangaitzak behartuta, langabeziarik eta kalte-ordainik gabe, etorkizunerako berme barik, langileak enpresatik alde egiten hasi ziren.

Udatik hona izan ditugun zazpi epaiketak langileen ordezkariak irabazi dituzte. 2024ko otsailean, enpresan geratzen ziren langileek prentsaren bidez jakin zuten kaleratu zituztela: erdiek artikulua argitaratu ondoren jaso zuten kaleratze gutuna, eta beste erdiek jakinarazpenik ere ez dute jaso. SEPEra jo behar izan dute, haien lan-egoera zein den egiaztatzeko.

Enpresak 6 hileko zorrak ditu langileekin, baita Gizarte Segurantzarekin ere. Geroari ekarpenak eta kaleratzeen kalte-ordainak ere zor ditu. CEOak hartu duen biktimitismoaren rola lotsagarria da, eta azpimarratu nahi dugu enpresa-kudeaketa negargarri horren benetako biktimak AYAKo langileak direla.

Eibarko LAB sindikatua

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PADAR → Arrisku egoeretan, babeslekua, leku segurua. Zezenketetan, 'burladeroa'.
"Padarretik zezenak ikusi, hobe dalako txalo artian hiltzia baiño, bildurti irauntzia".

Eibarko Udalaren aurkako sententziak hizkuntza-eskubideen aurkako doktrinan sakontzen du

Pasa den astean, Donostiako Administrazioa-
rekiko Auzien 1. epaitegiak Eibarko Udalaren
aurkako sententzia eman zuen, udaltzain bat
1992tik hizkuntza-eskakizuna zuen lanpostu
baterako euskararen ezagutza egiaztatzeko betebeh-
rretik salbuetsiz. Euskaingintzaren Kontseiluak eta
Eibarko ...eta kitto! Euskara Elkarteak euskararen
normalizazioaren eta herritarren hizkuntza-esku-
bideen aurkako oldarraldi judizialean kokatzen du
sententzia berri hau. Izan ere, Auzitegia juridikoki
eztabaidagarria den 2023ko Laudioko beste senten-
tzia batean oinarritzen da eta, ondorioz, azkenaldian
herritarrok jasaten ari garen hizkuntza-eskubideen
aurkako doktrina indartzen du.


Sententzia beraren arabera, 2017tik Eibarko
udaltzaingoak gutxienez zazpi kexa jaso ditu
herritarren hizkuntza-eskubideen urraketei lotuta,
eta Hizkuntz Eskubideen Behatokian ere herritarren
hainbat salaketa jaso dira. Kontutan izan behar da
kexa hauek errealtatean ematen diren urraketen
lagin txiki bat besterik ez dutela ordezkaten, izan
ere, askoz gehiago dira urraketak salatzen animatzen
edo ausartzen ez diren herritarrak. Gainera,
segurtasun publikoa da hizkuntza-eskubideen
bermeak garrantzia berezia hartzen duen arloetako
bat, osasungintza eta justiziarekin batera. Izan ere,
herritarren hizkuntza-eskubideen urratzeak
bestelako giza-eskubideen urraketa eragin ditzake.

Halaber, gogoratu behar dugu administrazio
publikoak duela herritar guztien eskubideak

bermatzeko betebeharrak eta, horretarako,
ezinbestekoa da langile publiko guztiek bi hizkuntza
ofizialen ezagutza izatea. Hori bi modutara
egin daiteke: lanpostuei gutxienezko hizkuntza-
eskakizunak jarritz, eta jada lanean dauden langileak
euskalduntzeko bitartekoak eta erraztasunak
eskainiz. Azken honi lotuta, administrazioak
bermatu behar du euskara ikasteko eskaintzen
zaien formazioaren aprobetxamendu egokia egiten
dutela langileek, eta, bestalde, langile publikoek
ulertu behar dute beraien lanpostuaren funtzioak
egoki betetzeko ezinbesteko formazioa dela.
Izan ere, administrazioak ordaindutako euskara
ikastaroak aprobetxatzen ez direnean, herritarren
zein langileen eskubideak urratu eta baliabide
publikoak xahutzen dira.

Azkenik, Euskaingintzaren Kontseiluak eta Eibarko
...eta kitto! Euskara Elkarteak babesa agertu nahi
diogu Eibarko Udalari sententziari helegitea jarri
eta prozedura judiziala azkeneraino eramanez.
Era berean, euskararen normalizazioaren eta herritar
guztien hizkuntza-eskubideak bermatzearen alde
dauden indar politikoei dei egiten diegu legegintzaldi
berrian oldarraldiari aurre egiteko konpromisoak har
ditzaten. Zehazki, azken asteetan legelari adituek
egindako proposamenen bidetik, eta Kataluniako zein
Galiziako ereduak aintzat harturik, administrazio
publikoko hizkuntza-irizpideen paradigma alda
dezaten, gaztelera izan ez dadin enplegu publikorako
obligaziozko hizkuntza bakarra.

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 27
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 29
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 30
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 3
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Eduardo Mugertza Urkidi**. 66 urte. 2024-04-16.
- **Celso Gomez Rodriguez**. 91 urte. 2024-04-17.
- **Eusebio Alonso Millan**. 87 urte. 2024-04-18.
- **Paz Costa Sanchez**. 68 urte. 2024-04-20.
- **Feliciano Perez Aparicio**. 88 urte. 2024-04-20.
- **Alfonso Goy Lovelle**. 61 urte. 2024-04-20.
- **Juan Jose Goin Iriondo**. 89 urte. 2024-04-21.
- **Valentina Arribalaga Irasuegi**. 92 urte. 2024-04-22.
- **Purificacion Ferreiro Lorenzo**. 90 urte. 2024-04-24.



Inoizko emaitzarik onenak lortu ditu EH Bilduk Eibarren

Ezker abertzaleak Eibarren lehen indarra izatea lortu zuen domekan lehen aldiz. Eusko Jaurlaritzarako hauteskunde hauetan 4.145 boto jaso zituen EH Bilduk, orain arte horrelakoetan EAJ-PNV nagusi izan denari aurrea hartuz. Azkenekoei errepassoa eginez, jeltzaleak Eibarren nagusi izan ziren 2020an, 2016an eta 2012an: orain dela hamabi urte PSE-EE bigarren izan zen bezala,

beste bietan EH Bildu kokatu zen postu horretan, sozialistak hirugarrenera bidalita. Oraingoan, beste postu bat irabazi eta lehen indarra bilakatu dira; ez hori bakarrik, sozialistekiko aldea ere handitu dute eta. EAJ-PNVk 3.806 boto lortu ditu Eibarren, eta PSE-EEk 2.948. Aipatutako hiru horien atzetik geratu dira PP (737 boto), Sumar (386), Elkarrekin Podemos (297) eta Vox (170).

Eibarko emaitzak eta politikoen balorazioak aldizkari berezian

Beste batzuetan bezala, domekako hauteskunde emaitzak eta Eibarko ordezkari politikoen balorazioak biltzen dituen paperezko edizioa astelehen goizean banatu genuen Eibarko kiosko eta beste hainbat tokitan. Bertan, auzoetako emaitzak jaso ditugu, taulen bitartez ikusteko, irakurketa orokorrarekin eta grafikoekin batera. **Interneten ere eskuratu daiteke** alearen PDF-a, www.etakitto.eus gure webguneko HAUTESKUNDEETAKO ALEAK atalean.



**Familien arteko
ALTXORRAREN
BILA badator!**

Maiatzak 10 OSTIRALA
17:15etik aurrera

*Saria
denentzat*

www.etakitto.eus





Ixidro Gabirondok irabazi du ...eta kitto!-k zozketatutako bigarren oparia

Ixidro Gabirondok irabazi du ...eta kitto! Euskara Elkarteak bere bazkideen artean egindako bigarren zozketaren saria: Belaustegi jate-txean bi lagunendako bazkari ederra. Pozarren etorri zen sari bila Ixidro, ...eta kitto!-k Urkizun dituen lokaletara, eta Marisol Uriarte elkartearen lantaldeko kidearen eskutik jaso zuen. Bazkideak dira ...eta kitto!-ren aktiborik handiena, eta horregatik Euskara Elkarteak

eskerrak eman eta aitortza eskaini nahi die, emandako babesarengatik. Orain arte bi zozketa egin dira, eta oraindik beste lau geratzen dira. Hurrengoa maitzaren 3an egingo da, eta irabazleak fruta-otar ederra jasoko du, El Canton de la Avenidaren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkarteak martxan daukan #Zarela-koGara kanpainarekin, herritarrak elkarteko bazkide egitera animatu nahi ditu.

Horma-irudiak sortu ahal izateko 3.000 lata falta zaizkie Latia emon! ekimenekoei

Latekin muralak egiteko 3.000 lata bildu behar dituzte ekimeneko sustatzaileek, eta herritarrei laguntza eskatu diete. Latak biltzeko edukiontziak ere jarri dituzte: Isasi eta Jardinetako institutueta; Legarre, Txaltza Zelai eta Barrenako fruta-dendetan; Maria Ospitxalen (Calbeton kalean); Egogain eta San Andres zaharren egoitzetan; Amaña, Arrateko Andra Mari eta Urkizu ikastetxeetan; eta Armeria Eskolan.



Asua Errekan gasolindegia zabaldu aurretik trafiko azterketa egiteko eskatu dio Udalari EH Bilduk

Asua Errekan, goiko aldean (Sucesores de F. Elcoro eraikina dagoen tokian), gasolindegia jartzeko proiektua aurreikusita dagoela eta, Eibarko EH Bilduk horren berri eman nahi die herritarrei: "Aurretik ezaguna da orube horretan egon den tailerrea nikel eta kromo bainuak erabiltzen zituztela eta, ondorioz, lur horiek kutsatuak egongo direla. Bestalde, gasolindegi hori *low cost* horietakoa izango da, eta horrelako gasolindegiek gidariak erakartzen dituztela irakurri dugu prentsan. Beraz, Asua Errekan gasolindegia ipinita, ondorio logikoa izango da trafikoa handitzea". Gainera, herri barruan gasolindegi bat jartzea guztiz desegokia dela uste dute. Hori guztia kontuan hartuta, lizentzia eman baino lehen, EH Bildu udal taldeak honakoa proposatu dio Udalari: orubearen jabeek eskatzea lur horien tratamendua, dituzten metalak kentzeko, eta lur horiek lehengoratzeko; eta udal arkitektoak edo enpresaren batek trafiko-azterketa egitea". Horren arabera, eta gasolindegi berriak trafiko eragozpen larriak sortuko dituela jakinda, Udalak eibartarron interes publikoaren alde egitea eta, beraz, gasolindegia ipintzeko baimenik ez ematea ere eskatu dute.



Santa Kurutzeko jaiak asteburu honetan abiatu eta hurrengoan jarraituko dute

Auzoko jai batzordekoek egitarau zabala antolatu dute datozen bi asteburuetarako. Jaiak asteburu honetan hasiko dira,, zapatuan Ixua jatetxean egingo den bertso afariarekin. Ekitaldia 20:30ean hasiko da eta bertan izango dira Xabat Illarregi eta Iban Urdangarin bertso-

lariak. Txartelak Ixua jatetxean eskura daitezke. Ospakizun nagusiak, baina, datorren astean izango dira, barixakutik domekara bitartean. Santa Kurutz egunean (maiatzaren 3an) hasiko dira, 17:30ean ermitako kanpaiak iraulita eta 18:00etan ospatuko duten mezarekin.

Txonta eta Errekatxurako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari egindako aldaketari alegazioak egiteko epea ekainaren 13ra arte egongo da zabalik

Txonta 125 jarduera integratuaren eremuan eta Errekatxu kaleko 17, 19 eta 21 zenbakien Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren 7. aldaketaren hasierako onespena eta gero, alegazioak aurkezteko epea zabalik dago. Interesdunek ekainaren 13ra arteko epea izango dute horretarako. Tarte horretan

Azterlan Estrategikoa ere jendarean egongo dela jakinarazi dute. Informazio guztia Udalaren webgunean, www.eibar.eus helbidean kontsultatu daiteke. Horrekin batera, herritarrei azalpenak emateko partaidetza-saioa egingo da martitzenean, 18:30ean, Portaleko areto nagusian.

Domeka eguerdirako manifestazioa deitu dute “¡Stop genocidio! Palestina askatu!” goiburuari jarraituta

Eibarko Gerrarik Ez eta Eibar Palestinarekin taldeek antolatuta, domekan “¡Stop genocidio! Palestina askatu!” goiburuari jarraituta manifestazioa egingo da, 13:00ean Untzagatik. Horrekin batera, gerra eta sarraskiaren kontrako poesia eta musika emanaldia egin zuten egunean, Arrate Kultur Elkarteak: “Ekitaldi hau gure lagun poetei eta musikariei esker prestatu eta deitu dugu. Mobilizazioez gain, ahoz-kotasunerako eta elkarrizketarako topaketak beharrezkoak direla uste dugulako, edonork hitz egiteko aukera izan dezan”.



Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Langileen eskubideak kalean borrokatzeko eguna

Sindikatuak Langileen Nazioarteko Egunerako antolatu dituzten mobilizazioak euskal hiriburuetan egingo dira aurten ere. Orain arte manifestazioak eskualdeka egiten zituen LAB sindikatuak ere nazio mailako manifestazioa deitu du, aurten 50 urte betetzen dituela-eta, aurtengo Maiatzaren Lehena berezia izatea nahi dutelako Horregatik Iruñean ospatzeko deialdi nazionala egin dute, Eskubideak. Burujabetza. Eraldaketa lelopean.



Sindikatuak buruen berbetan, “borroka eta jai giroa uztartuz, nazio manifestazioa egingo dugu Iruñean, 11:30ean Gazteluko plazatik abiatu eta Anaitasunaraino. Ondoren, bertan, ekitaldia eta egun beteko jaialdia izango dugu. LABen komunitatea eta LABen langunak elkartzeko eguna izango da”. Eskualdetik bertara joan nahi dutentzat autobusak antolatu dituzte: Eibartik 09:10ean irtengo da, Errebaletik, eta buelta 20:00etan izango da. Izena emateko Eibarko LABeko egoitzara joan daiteke, edo mezua bidali j.baranguan@lab.eus helbidera.

LAB-etik esan dutenez, “mende erdiko ibilbidearekin, LAB langile guztien etxea da, borrokarako tresna, erreferentziazko sindikatua euskal langileriarentzat. Sindikatuak defendatutako ideietako asko nagusi bilakatu dira euskal sindikalismoan: izaera soziopolitikoak, kontraboterea, independentismoa, sindikalismo feminista, sindikalismo antirrazista. Guztiak beharrezkoak, bizi dugun krisi sistemikoari aurre egiteko”.

Antolatu, borrokatu, irabazi lelopean ospatuko du ELAk aurtengo Maiatzaren Lehena. Sindikatuak ordezkarien arabera, lau gai nagusik laburbiltzen dute gaur egungo egoera sozioekonomikoa: enpresen etekinak handitu dira; langileen lan eta bizi baldintzek okerrera egin dute (erosteko ahalmenaren galera, zerbitzu publikoen okertzea, etxebizitza, prekarietatea...); gobernuen konplizitatea; eta ezker instituzionalaren oposizio eta proposamen alternatiboen falta. Horren aurrean, bestelako politika publikoak defendatzen dituzte: “Patronalaren interesen eta botere ekonomikoaren kontrako borroka politiko, sozial eta sindikala egitea da aldaketa soziala lortzeko jarrera koherente bakarra. Ezkerreko espazioetan adostasunak lortu beharko lirateke, egungo politikei aurre eginaz,

alternatiba sozial, feminista eta ekologista bat defendatzeko". Horrela, Bilbon (11:30ean Jesusen Bihotza) eta Iruñean (11:30ean Gurutzeko plaza) egingo diren manifestazioetarako dei egin du ELA-k.

CCOO eta UGT sindikatuek deialdi bateratua egin dute

Eta, azken urteotan egindakoaren bidetik, CCOO Euskadiko Langile Komisioak eta UGT-Euskadik deialdi bateratua egin dute Maiatzaren Lehenerako. *Enplegu betearen alde: lanaldi laburragoa, soldata hobekak* goiburuari jarraituta, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan manifestazioak egingo dituzte: Bilbon, 11:30ean abiatuko dira, Jesusen Bihotzetik; Donostiako mobilizazioa 12:00etan hasiko da, Alderdi Ederren; eta Gasteizen 12:00etan irtengo dira, Ama Zuriaren plazatik.

Aipatutakoez gain, Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak ere mobilizazioa deitu du Langileen Nazioarteko Egunerako: Bilboko Jesusen Bihotzetik hasiko da EHKS deitutako manifestazioa, 13:00ean. *Badago alternatiba. Langile boterea eraiki* lelopean egin dute deialdia, "instituzioetako fartsatik harago alternatiba erreala badagoela adierazteko. Langile boterearen eraikuntza". Diotenez, "ezinbestekoa da langileon alderdi independentea eraikitzea eta enpresarietako eta politikari profesionalen independentziaz aritzea".



Amillubiren hazia ereiten ari da

Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko elkarteak Zestoako Iraeta auzoan dagoen Amillubi baserria erosteko bidea hasi du, ondasun kolektibo bihurtu eta agroekologiari bultzada emateko proiektua martxan jartzeko. Horretarako, herritarrei, erakundeei eta enpresei deia egin diete, guztiek bere alea jarri eta proiektua hazteko aukera emateko.

BIDEOA



Eguazten arratsaldean Amillubi Taupaka proiektua aurkeztu zuten Arrate Kultur Elkarteak. “Behar batek sortu den proiektua da”, aipatu zuten Leire Ibarretxe Biolurreko kideak. Batetik, Amillubiren webgunean dagoen bideoan azaltzen den bezala, “urtez urte nekazal lurra eta baserriarrak abiadura larrian galtzen ari garela ikusteak kezkatu egiten gaitu”, diote. Izan ere, azken hiru hamarkadetan 5.500 hektarea nekazal-lur galdu dira Gipuzkoan, 8.000 futbol zelairen adina.

Eguazteneko aurkezpenean azpimarratu zuten beste behar bat baserrian dagoen errelebo falta da. Euskadin populazioaren %1ak jarduten du nekazaritzan, eta 10 urtetan erdia baino gehiagok jubilatuko da. “Gainera, nekazaritza ekologikora iristen diren asko ez dira baserriko seme-alabak, ez dituzte lurrik, eta lurra topatzeko arazoak daude”, Ibarretxeren esanetan.

Nekazariak lurra izatea da proiektuaren sustraietako bat, eta herritarrek elikagaiak izatea da beste bat. Izan ere, elikagaien %90 kanpotik ekartzen da, “eta horrek menpeko egiten gaitu”, proiektuko sustatzaileek diotenez. Beraz, elikadura burujabetzaren estrategia eraikitzeak aukera eskaintzen du Amillubik. Gainera, EAEn ekoizten den %10 horretatik, erabilgarri dauden lurren %4,6etan soilik ekoizten da nekazaritza ekologikoaren bidez.

Gauzak horrela, Amillubi bereganatzea berebizikoa izan daiteke. Zergatik? “Toki estrategikoan dagoelako kokatuta”, diote proiektuaren sustatzaileek. Urola ibaiaren meandro naturalean dago eta, krisi klimatikoaren garaiotan, ura eskura izatea bermatzen eta lurrraren emankortasuna indartzen du. Horrez gain, 26 hektareako nekazaritza lur gisa kalifikatuta dauden eremu zabal baten alboan

dago, etorkizunera begira proiektua hedatzeko aukera eskainiz. “Bali handiko nekazal lurra dira”, Ibarretxeren ustez. Eta gainera, Gipuzkoan horrelako lur askorik ez egoteaz gain, logistikoki oso ondo kokatuta dago bertan sortutako elikagaiak saltokietara banatzeko.

Ekarpenak maiatzaren 30a baino lehen

Ekiteko garaia dela diote Amillubi Taupaka proiektukoek eta asmo horrekin jarri dute martxan Zestoako Iraeta auzoko baserria eta lurra erosteko egitasmoa. “Hasiera batean ez genuen lurra erosteko asmorik, baina Biolurreko bi kidek Amillubi baserriaren alde bat hartu zuten (bi etxebizitza eta lurra daude Amillubin) eta beste aldean, oinordekorik ez dituztenez, bertako familiak saltzea erabaki zuten”, azaldu zuten Ibarretxek. Horrela, bertara bizitzera joan ziren gazteei lurra lantzea eskaini zieten



15 lagunek osatzen dute Amillubi Taupaka proiektuaren talde eragilea. AMILLUBI TAUPAKA

eta hauek Biolurri jakinarazi zieten egoera.

Biolurrek lurrak babesteko eta erreleboa emateko aukera ederra zela ikusi zuen. “Proiektu potoloa da, baina beharrezkoa”, Ibarretxeren ustez. Beraz, gaia gizarteratzea erabaki zuten, proiektu kolektiboa gauzatzeko.

Guztira, 390.000 euro behar dituzte erosketarako eta baserria konpontzeko, eta bertako familiarekin ordainketa bi zatitan egitea adostu dute. Horrela, lehen ordainketa egiteko, maiatzaren 30a baino lehen 150.000 euro es-

kuratu behar dituzte eta dagoeneko (eguen goizera arte behintzat) 100.300 euro eskuratu dituzte. 547 dohaintza jaso dituzte eta hor ere jarri dute begia, “ahalik eta jende gehiagorengana iritsi nahi dugulako”, proiektua kolektiboa izan dadila nahi duten neurrian.

Norbanakoek amillubi.coop57.coop webgunearen bitartez egin ditzakete dohaintzak. “Edozein kopuru eman daiteke eta errenta aitorpenean desgrabatu egiten du”, azaldu zuten. Gainera, Biolurrek aportazioak eskatzen ditu eta kooperatibei dei egin diete euren

irabazien ehuneko bat emateko, “proiektu sozialei eskaintzen baitiete zati bat”. Adibidez, Fagorrek antolatutako lehiaketa batean hartu zuten parte eta, irabazi ondoren, 60.000 euro eskuratu zituzten.

Epe labur eta luzerako proiektuak

Amillubi Taupaka proiektuko ki-deak hasi dira lurrak mugitzen (porru-landareak landatuz, babarrunak ere jarriko dituzte, udazkenean garia Sosolakoekin elkarlanean...). Izan ere, baserriko jabeekin egin duten akordioaren arabera, familiako amonak eskubidea izango du

PUBLI RESA
EKOEN ERABILKETA

merchandising
senigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



Eguaztenean aurkeztu zuten Amillubi Taupaka proiektua Arrate Kultur Elkartean. EKHI BELAR

baserrian bertan geratzeko proiektua martxan jarrita ere.

Proiektua aurrera eramateko bi lagun daude lanean jardun dudan eta 15 lagunek osatzen dute talde eragilea. Hiru taldetan banatzen dira (alde sozioekonomikoa, sorkuntza eta komunikazioa, eta proiektuen taldea), eta epelaburre-rako eta epe luzerako proiektuak zehaztu dituzte.

Elikadura burujabetzarako bidean lurrarekin errespetuzkoak diren laborantza proiektuak jarriko dituzte martxan Amillubin, eta formazioa eta nekazarien arteko saretzea sustatuko dute, nekazari berri gehiagoren bidelagunak izanik.

Iparraldeko Lurzaindia proiektuaren lorratzari jarraituz, Euskal Herrian nekazaritza herrikoia eta iraunkorra eraiki nahi dute. “Hego Lurzaindiaren lehen alea jartzen saiatuko gara”, aipatu zuen Ibarretzek.

>>> Eusten gaituen lurra ondasun kolektibo bilakatzeko helburuarekin abiatu dute Amillubi Taupaka proiektua

Besteak beste, baserrietako erreleboa bermatu nahi dutenez, laborantza hasi nahi dutenentzat trebaleku funtzioa beteko dute; formazio eta sentsibilizazio saioak egingo dituzte; eta lan baldintza duinak sortu nahi dituzte laborarientzat, modu kolektiboan.

Udaberriko Lurra Taupaka Festa Maiatzaren 11rako egun osorako egitaraua prestatu dute Amillubin. Bisita gidatua egiteko aukera egongo da proiektua hobeto eza-

gutzeko eta, horrez gain, eskaintza kulturala egongo da: kontzertuak (Pelax, 3zur eta Babarrunba), saio umoretsua Enekoachen (Antton Telleria) eskutik, bakarrizketa (Beatriz Egizabal ‘Grego’-ren eskutik), poesia errezitaldia (Mejillon Tigre), bazkaria, umeentzako txokoa, eta abar.

Egun osorako sarrerak 20 euro balio du, goizekoak 10 euro eta arratsaldekoak 15euro. Bestalde, bazkarirako 10 euro ordaindu beharko da. Sarrerak webgune honetan erosi daitezke: <https://entradium.com/eu/events/amiillubi-festa>

Ekintzak Amillubin egingo diren arren, ibilgailuak Iraetako futbol zelaian lagako dira eta Amillubira iristeko ibilbidea adierazita egongo da (5-10 minutu oinez). Mugikortasun arazoak dituztenentzat berri, garraio zerbitzua egongo da Iraetako aparkalekutik Amillubira maiztasunez.

Kultur aniztasun eta elkarbizitzarako teknikaria behar da

ESKATUKO ZAIO

- Hezkuntzarekin eta gizartearekin lotura duten ikasketak (irakaskuntza, gizarte-hezkuntza...)
- Euskara ondo menperatzea, ahoz zein idatziz

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi erdiko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin)
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea
- Ordutegi malgua
- Proiektu erakargarria

BALORATUKO DA

- Eibartarra izatea eta errealitate soziolinguistikoa ezagutzea
- Euskaingintzan edo gizarte mugimenduan eskarmentua izatea
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna izatea
- Gidabaimena eta kotxea

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus



LAN ESKAINTZA

Publizista behar da

ESKATUKO ZAIO

- Publizitate, marketin edo komunikazio ikasketak izatea
- Euskara ondo menperatzea, ahoz zein idatziz
- Lantaldean aritzeko gaitasuna
- Iniziatiba eta enpatia

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi osoko kontratua (mugagabea izateko aukerarekin)
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea
- Ordutegi malgua
- Proiektu erakargarria
- Langiro atsegina

BALORATUKO DA

- Eibartarra izatea eta ingurua ondo ezagutzea
- Publizista lanetan esperientzia
- Sare sozialak menperatzea
- Sormenerako gaitasuna
- Gidabaimena eta kotxea

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus



Euskara loratzeko hazirik onenak dauzkagu herrian

Ongietorri eta Gurasoak Berbetan programetako dozenaka familiak hartu zuten parte ...eta kitto! Euskara Elkarreak Pagoetara antolatutako irteeran.

Eguraldia lagun, eta primerako giroarekin, autobus bete bi irten ziren zapatu goizean Eibartik Iturrarnerantz, Pagoetako parketxerantz. Bertan, familiak erleen inguruko mundu zirrargarria gertutik ezagutu eta paraje ederraz gozatzeko aukera izan zuten. Parketxea XVIII. mendeko jatorrizko egurrezko egitura mantentzen duen baserri ederra da. ...eta kitto! Euskara Elkarreak antolatzen dituen Ongietorri eta



Gurasoak Berbetan programetako 30 bat familia izan ziren irteeran 120 lagun guztira. Parketxeko arduradunen berbetan, “inoizko bisitarik handiena izan da eibartarrena”. Horrelako talde handia izanik, bitan banatu eta txandaka egin behar izan zituzten parkeak eskaintzen zizkien jarduera guztiak.

Horrela, batzuek erleen mundua altxorraren bila moduko jolas baten bitartez ezagutzen zuten bitartean, beste batzuk erlauntza ikustera abiatu ziren. Erleak aurrez aurre ikusi eta euren jarduna hobeto ezagutzeko aukera izateaz gain, ezta dastatu eta kandelatxo bat ere egin zuen partaideetako bakoitzak.

Ondo gozatu zuten ume zein helduek eta, ...eta kitto! Euskara Elkarreko dinamizatzaileen hitzetan, are garrantzitsuagoa izan zen: “Harreman eta lagun berriak sortu ziren bertara joan zirenen artean. Eta horixe da, hain zuzen ere, jarduera osagarri hauekin bilatzen duguna”.

Izan ere, bai Gurasoak Berbetan zein Ongietorri programetan, familien hizkuntza ohituretan eragitea





Euskarazko harreman berriak egiteko ere balio izan zuen Pagoetara egindako irteerak. AINARA LAVADO

da euskara elkarteak bilatzen duena. Euskarari begira abiapuntu desberdina duten partaideek hartzen dute parte programa bakoitzean, baina hainbat helburu partekatzen dituzte, hala nola komunitatea eratzea, euskarazko harreman-sarea ehuntzea edota umeek euskara gurasoentzat garrantzitsua dela sumatzea.

Familia-giroa euskalduntzeko

Horrela, Gurasoak Berbetan etxeko hizkuntza ohituretan eta transmisioan eragiteko pentsatuta dago, hau da, guraso eta seme-alaben arteko harremanak euskaraz izan daitezen ohiturak finkatzea bilatzen du, baina hortik haratago ere badoa, gurasoen arteko harremana ere euskaraz izatea helburu baitu. Euskaraz berba egiteko ohitura berreskuratu nahi duten gurasoek, euren euskara hobetu nahi dutenek edo hizkuntza hobetzeko premia dutenek lekua dute programa honetan.

Mintzapraktikan oinarritzen bada ere, beste era batekoa izaten da programa honetakoa. Izan ere,

seme-alaba txikiak dituztenei zaila egiten zaie astero tartetxo bat hartzea; hori dela-eta, mintzapraktika talde naturaletan egiteko aukera eskaintzen zaie gurasoei, hau da, kuadrillan, eskola inguruan edo parkean elkartzen diren taldeetan.

Euskarara hurbiltzeko

Ongietorri, berriz, harrera eta elkarbizitarako programa da eta helburu nagusi bi ditu: jatorri ezberdinetako bizilagunek elkar ezagutzea eta etorri berriak euskarara eta euskal kulturara gerturatzea. Horretarako, kultur eta jatorri ezberdinetako pertsonak elkartzen dira, herriko lau auzotan: martitzenean Ipuruia aldekoak EPA-n, eguaztenetan Amañako eskolan eta eguenean, goizez Urkizun (...etakitto!-n), eta arratsaldez Urkiko Arrateko Andra Mari eskolan.

Jatorri eta kultura ezberdinetako lagunek osatutako saio horiek... eta kitto!-ko teknikari batek dinamizatzen ditu eta giro lasaian jarduten dute gai ezberdinak lantzen oso modu praktikoan.

Inoizko bisitarik jendetsuena hartu zuen Pagoetako parketxeak, 120 eibartar izan ziren zapatuan

Erleen mundua bertatik bertara ezagutu eta paraje ederraz gozatu zuten familiek



DANEL DEL PRADO

“ROBADA”

Neure belaunaldiko jendeari "robada" bat zer den ba al dakien galdetuko banio, ziur asko gehienek lapurreta baten inguruan ari naizela pentsatuko luketela. Hiztegian bilatu behar izan dut euskaraz modu berean ala antzeko termino batekin aipatzen al den (ikastolan gaztelaniazko izenarekin ikasi baikenuen) eta honakoa aurkitu dut: erregu-lurra, erregunerria, erreneurria.

Euskarazko izenek lurarekin eta neurriekin zerikusia duena iradokitzen digute. Hala da, erregu-lurra Nafarroan historikoki erabili izan den laborantzako azalera-unitatea da, 898,456 m² izanik bere balioa. Azalera hau erregu bat alerekin ["robo" gaztelaniaz, 28,13 litroko edukieraren baliokidea] eskuz erein zitekeen lur zatiari dagokio.

Egun, baina, laborantza industrialaren teknikekin lursailak hektareaka lantzen diren garaian, neurri-sistema historikoen erabilera anakronikoa iruditzen zaigu, kontu arkaiko bat. Zertara datoz, orduan, matematika eta historia nahasten dituzten azalpen hauek guztiak hasieran?

Joan den asteburuan aitona-amonei bisita egiten izan nintzen neure senideen herrian, Tafallan. Bertan, ohikoa da oraindik lursailak erregu-lurretan neurtzea, baratzei dagokienez bederen, eta tafallar ugariren antzera, aitona-amonek ere badute haien "robada" bateko lur zatia Zidakos errekaaren alboan. Hasierako azalpena lagungarria izan daiteke baratzearen hedaduraren ideia bat edukitzeko.

Han-hemenka landatutako laboreek, negutegi txiki batek, ureztatze-erretanak, txabola txiki batek eta jateko apur baten truke baratza zaintzen duten zenbait katuk osatzen dute leku baketsu hau, lur emankorrezko "robada" hau, aitona-amonek denbora librean bertan egindako lanaren erakusgarri. Beraiei esker, urteetan zehar familiakoak eta lagunak baratzean hazitako barazki eta fruituekin elikatu gara, hein handi batean, bai fresko zein kontserban gordeta.

Egungo kontsumo-ohiturek, ohiko aisialdi-planek eta bizimoduak, oster, zerikusi gutxi daukate aitona-amonei buruz azaldu ditudanekin. Azkartasuna eta berehalakotasuna gailendu diren aro honetan, arkaikoa dirudi teknologia berririk gabeko eginkizun bat gauzatzea, edota gogoia egiten zaigun horretaz gozatzeko denbora luze itxaron behar izatea.

Oro har, aipatutako ezaugarriak kontuan izanda, anakronikoa dirudi aitona-amonek baratzearekin duten bizimoldea. Hala ere, hauxe ez al dator bat batzuek modernotzat duten "slow life" edo bizimodu motelarekin, edota alternatiba berritzaile gisa planteatzen den elikadura-burujabetzarekin? Horrenbestez, badirudi oraindik ez dela boladaz pasa "robada" bat eskuz lantzearen ideia eta bere onurak. Zaharrak berri!

“Joan den asteburuan aitona-amonei bisita egiten izan nintzen neure senideen herrian, Tafallan. Bertan, ohikoa da oraindik lursailak erregu-lurretan neurtzea, baratzei dagokienez bederen”

AUTOEN GEHIGARRIA

2024ko apirila

Autoen oinarrizko konponketak

Auto baten bateria aldatzea

Automobilien bateriek une desegokietan agortzeko joera dute. Errepidean baldin bazaude, laguntza bilatu eta garabi bati deitu besterik ez duzu egin behar. Baina etxean bazaude eta bateriak ordezkapena behar duela adierazten badu, bateria aldatzeko metodoa nahiko erraza da. Besteak beste, hauek dira egin beharrekoak: bateriaren estalkiak kendu, kable negatiboak deskonektatu, besarkagailua bateriaren zutoinetik urrundu, kable positiboaren besarkagailuarekin gauza bera egin, torloju guztiak kendu, bateria zaharraren ordez berria jarri eta, azkenik, berriz konektatu kablebridak. Kableak kendu aurretik, etiketatu itzazu, gero arazorik ez izateko.



Faroa edo atzeko argia aldatzea

Eragozpen bat ez ezik, legez kontrakoa ere bada aurreko faroa edo atzeko argi bat puskatuta izatea. Ondorioz, itzali bezain laster aldatu behar dituzu. Prozesu

horretan, hauek egin behar dira: faroaren markoa euskarriari lotzen dioten torlojuak kendu, konektore elektrikoa deskonektatu, bonbilla akastuna kendu eta berria jarri, konektorea berriz konektatu eta

markoa aldatu. Batzuetan markoa bakarrik apurtzen da, eta hori ere arriskutsua izan daiteke. Prozedura berari jarraituz alda dezakezu.

Haizetako-garbigailuak aldatzea

Haizetako-garbigailu edo "limpiaparabrisas" delakoen eskuilak aldatu egin behar dira, eta haizetako-garbigailuak beti egoera onean daudela ziurtatu behar da. Urrats hauek egin behar dira: haizetako-garbigailuaren besoa jaso, haizetakotik bereizteko; mihi txikia zapaldu, haizetako-garbigailuaren eskuila berria besoarekin lerrokatu eta indarrez bultzatu.

Pinturatik urratuak kentzea

Besteak beste, urrats hauek egin behar dira: urraketaren sakonera zehaztu, urradura pixka bat lixatu, eremua garbitu, igurtzeko konposatua aplikatu, eremua frotatzeko konposatuarekin leundu, eremua garbitu eta, azkenik, inguruari argizaria eman, konponketa zigilatuzko.



SUMENDIXA GOIKUA S.L.

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)

☎ 943 82 04 49

☎ 688 871 717

✉ lurzuri@mapfre.com



Lasai gidatzeko trikimailuak

Badakigu gidatzerakoan lasai eta kontzentratuta egotea ez dela beti lan erraza, baina hori lortzen lagun diezaguketen trikimailu batzuk badaude.

- Gidatzen hasi aurretik, horretan zentratzea beharrezkoa da. Horregatik, garrantzitsua da, autoan zuzenean sartu ordez, buelta bat ematea inguruan, autoa zein egoeratan dagoen egiaztatzea, haizetako-garbigailuan jartzen dituzten ohiko paperak kentzea, barrutik dena ondo jarrita dagoela egiaztatzea... Horrek gidatzean murgilarazten gaitu eta gure arretamaila %20 handitzen du.

- Gidatzean egoera negatiboak eragiten dizkiguten emozioak daude, hala nola beldurra, haserrea... Pentsamendu hori identifikatzen eta aldatzen saiatu behar dugu.

- Emozioen kontrol ona izateko, arreta galtzea saihestu behar da. Horretarako, garrantzitsua da, GPSa erabili behar badugu, planifikatu eta aurrez begiratzea, eta ez ukitzea. Mugikorrak gorde eta ahaztu egin behar ditugu. Gidatzean soilik jarri behar dugu arreta.

- Oso garrantzitsua da gidatzeko modu lasai bat izatea. Hiru alderdi hartu behar dira kontuan. Lehena segurtasun-distantzia egokia uztea da. Beste alderdi bat autoaren inertziak aprobetxatzea da. Badakidanean



gelditu egin beharko naizela, azken unean azeleratu eta balaztatu beharrean, autoa bakarrik joaten utzi behar da, gidatze-gailur horiek saihestuz. Eta hirugarren gako minutuko birak dira. Ahalik eta baxuen eramanez gero, zarata gutxiago ateratzen da eta gidatzeko modu lasaiagoa lortzen da.


**Matsaria, 2
3 Pabilioia
-Eibar-**
Pintura (labean lehortua) Txapa
 943 208 502 carrocerias_mak@hotmail.com 699 203 791


**AUTO KONPONKETAK
AURRERA**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantentimendua - Erroberak

 Urtzaile, z/g Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

*Konfidantzako
zure konponketa lantegia,
zentraan kokatuta.*

**Talleres
Caño**
 Ubitxa 2 | 943 53 08 70

Auto berrien salmentak gora egin du Europan

2024ko lehen hiruhilekoan metatutako eskaria 4,4 puntu gorago dago iazko datuekin konparatuz gero, 2,8 milioi unitaterekin, Acea patronalak zabalduetako datuen arabera. Joera hori Europar Batasuneko herrialde populatuenean bultzatu dute: Frantziak eta Italiak %5,7ko igoera izan dute matrikulazioetan, Alemaniak %4,2koa eta Espainiak %3,1ekoa urte hasieratik.

Bestalde, Europar Batasuneko auto elektrikoen salmenten hazkunde-erritmoa jaitsi egin da azken hilabeteetan. Martxoan, matrikulatutako autoen %13 elektrikoak ziren. Otsaileko %12 baino zertxobait hobe da datua, baina 2023 osoko %14,6 baino okerragoa. Alemaniak, auto elektriko gehien saltzen dituen herrialdeak lagundu du geldialdi horretan; izan ere, modelo horien



Hibrido ez-entxufagarriek emaitza onak izan dituzte

matrikulazioak, dagoeneko erosteko laguntzarik ez dutenak, %28,9 jaitsi dira joan den hilean.

Automobil termiko puruek (gasolina eta diesela) ere lurra galdu duten bitartean, hibrido ez-entxufagarriek emaitza onak izan dituzte: aurreko hilean baino %12,6 gehiago matrikulatu dira; hala, merkatuaren %29 lortu zen, 2023ko martxoan %24,4 lortu zen bitartean.

Nola jakin auto baten benetako kilometroak

Bigarren eskuko auto bat erosteko asmoa baduzu, lehenik eta behin, ibilgailu horren txostena eskatu behar diozu Trafiko Zuzendaritza Nagusiari. Eta ez bakarrik kilometrajea aldatu edo manipulatu den jakiteko, baizik eta kargak dituen eta IAT-ITV egunean dagoen jakiteko.

Izan ere, IAT-ITV pasatu zuen azken aldiko kilometrajea egiaztatzen baduzu, benetako kilometroak ziurtatuko dizkizu. DGTren txosten hori Trafikoan edo Interneten eska daiteke. Gainera, autoaren dokumentazioa zure NANA bezalakoa da; beraz, eskura izan Azterketa Teknikoko Txartela, IAT-ITV txartelean eskuz idatzita agertuko baitira autoak guztira egin dituen kilometroak.

Dokumentazioa aztertu ondoren, ibilgailuak egindako kilometroen inguruan zalantzarik baduzu, beti jo dezakezu markaren tailer ofizial batera edo konfiantzazko tailer espezializatu batera, zalantzak argitzeko.

<p>EZ DA PROMOA, BENETAN EGIA BAIZIK.</p> <p>Eibarko PREZIORIK merkeak...</p> <p>...MARKA guztietako neumatikoean</p> 	<p>Carrocerías ARANE</p> <p>Arane, 6 - 5.</p> <p>Tel. 943 70 26 20</p> <p>Fax. 943 12 19 54</p> <p>arane.carrocerias@hotmail.com</p>	<p>Zure betiko KARROZERIA...</p>  <p>... orain MEKANIKA zerbitzuarekin</p>
--	---	--

	<p>ARGABA GESTION, S.L.</p> <p>Auto-aparkalekua eta lokal komertzialak ALOKAGAI</p> <p>Urtzaile, 1 (Aurrera eraikina)</p> <p>943 206 383 / 672 338 993</p>
--	--

<p>GASOLEOEN BANAKETA</p>   <p>Otaola etorbidea, 13-Bis</p> <p>Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77</p> <p>GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOIA</p> <p>24 ordu</p>

Argazkilaritza Maiatzean 22ra heldu da sasoi betean

Aurreko asteko egunean aurkeztu zuten Klub Deportiboko argazkilaritza batzordekoek gure herrian, urteroko bidetik, maiatza argazki-lorez janzteko duten proposamen berria. Pilota-jokoan 22ra heltzeak duen pisuaren eta ondo egindako lanaren meritua du batzorde horretakoen ekimenak, “Bilbon eta Hondarribian antolatzen zirenak desagertzean, gurea delako geratzen den maila honetako erakustaldi bakarra”.



Tino Sorianok tailerra eskainiko du (goian) / Txema Artetxeren lana (behean).

Betiko lez, estatu mailako argazkilarionen lanak izango dira ikusgai herriko hainbat tokitan, hasi Portalean erakusgai jarriko dituzten lau egileekin eta Eibarko beste zenbait puntutan izango direnekin jarraitzeko. Horrez gain, ez dira faltako betiko topaketak kalean, argazkilaritza-tailerra eta argazki rallya. Eta, jakina, Deportiboaren 100. urteurrena izanda, Euskal Herriko Argazkilaritza Taldeen Elkartearen Kongresua ere gurean izango da.

Aurkezpen-ekitaldian, Fernando Solana batzordeko presidente berriak bere aurretik karguan urte askotan izan den Bakarne Elejalderen lana azpimarratu zuen, Argazkilaritza Maiatzean-en programazioa osatzen laguntzen dietenei eskerrak emateaz gain: “Udala, Fotoprix, Portalea taberna, Arrate Kultur Elkarte, Untzaga Gizarte Etxea, ...eta kitto! eta Aitor Divasson”, izendatu zituen bertan.

EHATE Kongresua ere gurean

Maiatzaren 3tik 26ra arteko iraupena izango du aurtengo Argazkilaritza Maiatzean-eko egitarauak. Jardunaldi garrantzitsuenak hor tarteko asteburuek hartuko dituzte. Horrela, hilaren 3an Portaleko erakusketaren irekiera izango da, 19:00etan. Eta hurrengo egunean, zapatuan, kaleko topaketen txanda izango da,



Jose Luis Irigoien, Fernando Solana eta Txema Artetxe Deporrek argazkilaritza batzordeko kideak eta Patxi Lejardi Jaietako zinegotzia aurreko asteko aurkezpenean. Solana batzordeko buru berria da, azken urteotan kargu hori izan duen Bakarne Elejalderen lekukoa hartuz.

aurten inoiz baino lehenago burutuko direnak: betiko bidetik, erretratoak egingo dira, argazkiak ikusgai izango dira Untzagan... “beti ere argazki mundua jendearengana gerturatzeko asmoz, eta doan”.

Hilaren bigarren asteburuan Portaleak aipatutako EHATE Kongresua hartuko du, goizeko 10:00etatik aurrera. Maiatzaren hirugarren asteburuan, hor ere zapatuan, hilabeteko ekitaldi nagusienetakoa izango da, tailer bereziarena. Oraingoan Tino Sorianok eskainiko du, goiz eta arratsaldeko saioetan banatuta, eta “Anatomía de una foto”-ren inguruan jardungo du. Bertan parte hartzeko komeni da izena ematea lehenbailehen, “plaza mugatuak direlako”. Informazio gehiago argazkilaritza@deporeibar.com helbidean. Azken asteburuan, egitaraua ixteko, argazki rallya egingo da, kasu horretan domeka goizean, 08:30etik 13:30era.

Tino Sorioanoren tailerra hilaren 18an

Bestalde, 3tik 26ra ere, toki bakoitzak duen orduetegi jarraituta, hainbat erakusketa egongo dira herrian. Portaleak hartuko du nagusia,

Portaleak, Topalekuk, Untzaga Gizarte Etxeak, Portalea Tabernak eta Klub Deportiboak hartuko dituzte hilabete osoko erakusketak

honako egileekin: Iñaki Marcaidaren “Momentuaren aurretik eta ondotik”, Katy Gomezen “Ellas, elles, they...”, Adolfo Olmedoren “Costa Agata” eta Diego Pedraren “Distopia”. Deporrek taldeko Txema Artetxek “Un lugar de leyenda” erakutsiko du Topalekun, 51. Gipuzkoa Nazioarteko Sarikoak ikusgai izango dira Untzaga Gizarte Etxean eta Argizaiola Sarikoak Deporren bertan, klubeko batzordeko kolektiboaren lanak Portalea tabernan ikusi ahal izango diren bitartean.

Tino Sorianoaren tailerlean, bestalde, honako gaiak landuko dira: subjektuarekiko hurbiltasuna, erretratuak eta enpatia, lan-distantzia, lapurtutako irudiak, argazkiak ehizatzea eta arrantzatzea, trikimailu praktikoak, enkoadraketa insolitoak... etabar luze bat.

“Oso gorputzetik idatzitako istorioak dira, instintiboa izan da”

NEREA LOIOLA • Idazlea



Epizentroa liburuarekin etorri zaigu Nerea Loiola (Deba, 1985) Eibarrera, Harixa Emoten irakurketa-taldearen apirileko saiora. Helduentzat idatzi duen lehena da zazpi ipuinez osatutako bilduma hau, orain arte haur eta gazteen literaturara dedikatu izan da-eta. Idazle debarrarekin sortze-prozesuaz eta lanak biltzen dituen narrazioez hitz egiteko aukera izan zuten taldeko kideek, Ainhoa Aldazabalen gidaritzapean.

Orain arte haur eta gazteei zuzendutako lanak kale-ratu izan dituzu, eta hau da helduentzako lehena. Nola sortu zitzaizun liburua idazteko ideia?

Buruan dudak ideiak forma pixka bat hartzen duenean erabakitzen dut zein publiko motarentzako izango den, eta ez alderantziz. Idazten hasi nintzenean atera zitzaizkidan lehen istorioak gaztetxoentzako ziren eta hala bideratu nituen. Gero konturatu nintzen banituela kontatu beharreko beste batzuk, helduentzako zirenak, eta horretan jarri nintzen. Hala ere, aitortu behar dut kosta zitzaidalda lehen pausoa ematea, hau da, nire buruari permititzea helduentzako izan zitekeen zerbait idaztea; baina, behin atea zeharkatuta, ez dut atzera egingo!

“Epizentroa” izenburupean zazpi istorio bildu dituzu beste batzuen ahotik. Urrun daude zugandik kontakizun hauek?

Kontakizunak eta pertsonaiak nigandik urrun daude kasu gehienetan, baina gertakarien epizentroak nire oso barnean ainguratuta zeudela ohartu nintzen idazten hasi eta berehala. Beharbada, neure buruari zintotasuna permititzeko zen beharrezkoa distantzia hori.

Zergatik “Epizentroa”?

Lehen aldiz izen bera duen ipuina idazten ari nintzela azaldu zitzaidan hitza, niretzat oso garrantzitsua



"Idazterako orduan oso pertsona bisuala naiz, hitzetara eramaten ditudan egoera, eszena, elkarrizketa guztiak benetan gertatuko balira bezala irudikatzen ditut"



zen esaldi batean: diafragma da erraietako emozioen epizentroa.

Idazketa-prozesua bukatu eta liburuaren osotasunari erreparatu nionean, garbi ikusi nuen pertsonaia guztiak bazutela zerbait amankomunean: lurrikara bat gertatzen ari zen beraien bizitzetan edo izandako lurrikara baten erreplikak sentitzen ari ziren. Lurrikara baino hitz egoikiagorik dardara eragiten diguten bizipen horietarako? **Zertan inspiratu zara istorio hauek idazteko? Ildo nagusi bat badagoela esango zenuke?**

Zaila egiten zait lehen galderari erantzutea, istorio horiek aspalditik nire barnean egon izan balira bezala da; nire bizipenak bere kabuz korapilatu izan balira bezala urteetan irakurritako autore askoren hitzekin.

Ez dago istorio guztiak lotzen dituen haririk. Ipuin bakoitza leku desberdin batetik idatzi dut, espazio autonomo bat eman diot, bere erara izaten eta hazten utzi. Bukaeran, ordea, ikusi dut badagoela pertsonaia guztiak amankomunean duten zerbait (guztiak emakumezkoak izateaz gain), eta erabakiekin du zerikusia zerbait horrek. Liburuaren atzeko azalean esaten den moduan: gure buruan errotzen doazen erabakien eta erabaki horiek benetan gauzatzearen artean dagoen amildegian kokatzen dira sarri ipuin hauetako pertsonaia.

Zazpi istorioetan emakumea da protagonista. Nahita hartutako erabakia izan da?

Ez eta bai. Hasiara batean ez nuen egiten ari nintzenaren kontzientzia. Laugarren ipuina idazten hasi eta, berriz ere emakume baten ahotsetan nintzela ikustean, gelditu eta horren inguruan pentsatu nuen. Oso gorputzetik idatzitako istorioak dira eta hala behar zuela uste dut, instintiboan izan da.

"Kontatzen dudana ikusi egiten dut", zure hitzak dira. Zer esan nahi duzu?

Idazterako orduan oso pertsona bisuala naizela, hitzetara

eramaten ditudan egoera, eszena, elkarrizketa guztiak benetan gertatuko balira bezala irudikatzen ditut, edo pelikula batean ikusiko banitu bezala. Batzuetan begiak itxita idatzi dezakedala ere esaten dut (ez da egia...). Detaileetara heltzeko nire modua dela uste dut.

Ingeniaritza ikasi eta Matematikako irakaslea izatea ez dira, antza, idazle izatearekin kontrajarriak. Zenbat aldiz galdetu dizute ea nola bukatu duzun idazle izaten?

Oso galdera ohikoa da, jendea harritu egiten da nire ikasketak zein diren jakitean. Niretzat prozesu naturala izan da, literatura beti izan da nire parte bat eta denbora kontua zela uste dut.

Zertan diharduzu orain? Zer darabilzu eskuartean?

Une honetan gauza dezenterekin nabil. Gaztetxoentzako ESKAPU bildumako hirugarren liburua idazten ari naiz, udazkenean argitaratuko dugu; eta udaberri bukaeran umeentzako ESKAPU TXIKI bilduma jarriko dugu martxan. Gainera, Raul Guerra Garrido beka jaso nuen 2023ko udazkenean, eta helduentzako nire bigarren narrazio-bilduma amaitzen ere banabil. Lanik ez zait falta!

Zerk eman dizu arreta azkenaldian? Zer ari zara irakurtzen?

Duela gutxi amaitu dut Rafia Zakariaren "Feminismo zuriaren aurka" liburua eta oso gomendagarria iruditzen zait. Une honetan Annie Ernauxen zenbait liburu berrirakurtzen nabil, erreferente bat da niretzat.

Zer dira idazlearentzat Harixa Emoten bezalako irakurketa-taldeak?

Ezin dut beste idazleen izenean hitz egin, baina niretzat sekulako plazera dira halako tertuliak. Ederra da jakitea idatzi duzun hori norbaitengana iritsi dela, eta irakurleen iritziak eta komentarioak entzutea oso interesgarria da. Poz-pozik joaten naiz!

Bittor Astigarraga “Sumendixa” omendu zuten Asola Berriko tiraldian

Aurreko zapatuan Asola Berrin jokatutako Gipuzkoako Hiru-Txirilo bola-joko txapelketaren seigarren jaurtialdian inoiz baino bolari gehiago izan zen parte hartzen, 82 guztira. Tiraldia aprobetxatuz, omenaldia egin zitzaion Bittor Astigarraga “Sumendixa”-ri. Urte luzez Asola Berriko bazkide izan da bera, zenbait bolatokiko ordezkari izateaz aparte, eta aurten Elgeta taldearekin jokatzen du.

Laukote bat izan sei txirilo bota zituena eta, euren artekoan, Sergio Rodriguez eibartarrak eskuratu zuen lehenengo postua, Floreagako Gorka Etxaniz, Asola Berriko Gariquitoz Rodriguez eta San Migueleko Anjel Ibarluzearen aurretik. Une honetan Floreagako Santos Muñoz da nagusi txapelketaren sailkapen orokorrean, Asola Berriko Gariquitoz Rodriguezek baino bi txirilo



gehiagorekin. Eibarko bolatokiko Alex Campos eta Anartz Esteban ere ondo kokatuta daude sailkapenean. Emakumezkoen mailan, Isana Gorosabel aretxabaletarra doa aurretik, txirilo bakarrera Enara Montiel eta Jone Perales eibartarrak dituela. Taldekako sailkapenean, bestalde, Asola Berri A dugu lidergoan, San Miguel A baino zazpi txirilo gehiagorekin.

Gipuzkoako txapelketako seigarren jaurtialdia Leintz-Gatzagan jokatuko da zapatuan, betikoari jarraituz 17:00etan hasita.

Astelena frontoiak ateak ixteko astirik gabeko asteburua

Gaur 19:00etan hasi eta pilota jaialditik jaialdira izango dugu Katedrala hiru egunetan, domekara arte. Barixakuko jaialdian kadete mailako bi partidu eta azkena seniorrekoa jokatuko dira: Azpilikueta vs Beitia (Aretxabaleta), Varona vs Luluaga (Zestoa) eta Azkargorta vs Gorostidi (Amezketeta).

Zapatu goizean, 09:00etan hasita, IV. Eibarko goma pala txapelketaren bost partidu izango dira: Osa-Ginea vs Adonis-Etxabe, Olano-Agirrebeña vs Ferreira-Agirresarobe, Egiburu-Irizar vs Trontxo-Horma, Urkia-Bartolo vs Gaztelu-Jorge eta Narbaiza-Agirresarobe vs Conde-Arrieta. Eta arratsaldean, 17:00etan, beste bat: Narbaiza-Agirresarobe vs Ibarbia-Urain.

Domekara pasatuz, goizeko 10:30ean hasita, Gipuzkoako Uda-berri Torneoko partiduak jokatuko dira: infantil mailako Sarasketa-Olaetxea vs Montalvo-Zamakola (Bergara) eta 4 t'erdia barruko Iraolagoitia vs Onsalo (Alegia). Eguerdiko 12:00etan pala modalitateko Aparicio-Sarasua vs Gisasola-Zubizarreta partidua jokatuko da, hori ere Eibarko txapelketaren barruan.

Azkenik, domeka arratsaldean, 17:00etan hasita, pilota profesionalaren txanda izango da, bi buruz-buruko eta binakako batekin. Tartean izango da, jaialdiko partidu nagusian, Zabaleta eta Altunaren arteko norgehiagoka. Hasteko, Senar eta Aldabek neurtuko dituzte indarrak promozioan. Eta, amaitzeko binakakoan, Mata-Martija eta De la Fuente-Rezusta izango dira, nor baino nor.

Ireki dute X. FLYSCH Beltza Trabesian izena emateko epea

Aurtengo zeharkaldi horrek X. edizioa betekoa du, eta dagoeneko izena emateko aukera zabaldu dute, bertan parte hartzeko. FLYSCH Beltza Trabesia ekainaren 29an jokatuko da eta, aurreko edizioen kontrara, oraingoan ibilbide bakarrekoa izango da: 3.000 metro, hau da, hiru kilometroko ibilbidea osatuko dute Mutriku eta Debaren artean, goizeko 11:30ean abiatuta. Ekainaren 18ra arte izean ematen dutenek



35 euro ordaindu beharko dute, eta data horretatik aurrera eta ekainaren 25era arte apuntatzen direnek 40 euro.

Deporreko xake taldea Gipuzkoako 1. Mailara igo da

Aurreko zapatuan Errenteriako Beraun Berari 1-3 irabazita, Eibarko Klub Deportiboko xake taldeak igoera play-offeko neurketa guztietan garaile izatea lortu zuen eta, horrela, sailkapeneko lehenengo postua ziurtatzea, 19 puntu eta erdi bildu ondoren. 11 jardunaldi izan ditu taldekako Gipuzkoako 2. Mailako txapelketak eta eibartarrek maila bikaina erakutsi dute aste guztietan, azkenean sari bezala sasoi batean Deporrek taldeko militaratu zuten 1. Maila berreskuratu. Diego Olmo, Jon Arana, Xabier Beorlegi, Diogo Vale, Iker Garcia,



Azken jardunaldian Diego Olmo, Xabier Beorlegi, Jon Arana eta Aitor Beorlegik osatutako laukoteak jokatu zuen Beraunen aurka.

Aitor Beorlegi, Endika Garcia eta Eduardo Olabe izan dira denboraldi honetan jokatu dutenak.



Hamar dominekin itzuli ziren Kalamuako judokak Andorrako Nazioartekotik

Kalamuako judokek ez zioten hutsik egin urteroko hitzorduari eta "txikientzat oroitzapen ahaztezinak direnak" bizi izan zituzten Andorrako Nazioarteko Txapelketaren aitzakiaz. "Autobusez egindako bidaia, gaua hotelean lagunekin, Andorra la Vellako kaleetan paseoa..." azpimarratzen badute ere, ez ziren dominik gabe bueltatu Eibarrera. Horrela, benjaminetan eta

alebinetan, hiru zilarrezko (Oihan Kortazar, Maialen Lizarralde eta Jon Mendoza) eta brontzezko zazpi (Garazi Valladares, Rabab Chouma, Danel Mekolalde, Alain Gonzalez, Eneko Barrientos eta Xabier eta Josu Garro) lortu zituzten eibartarrek. Julen Martin, Sara Azpiazu eta June Valladaresek infantil mailan lehiatu zuten eta Doha Shrir-ek kadeteetan.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Athletic (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Albacete - EIBAR (etzi, 21:00)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Añorga - EIBAR B (etzi, 17:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

San Ignacio - VITORIA (bihar, 11:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Añorga B - EIBAR C

Erregionaleko Ohorezko Maila

EIBAR URKO - Zarautz

Erregionaleko Gorengo Maila

Billabona - URKI ALKIDEBA (bihar, 17:00)

Erregionaleko 1. Maila

Zarautz B - EIBARTARRAK

Ohorezko Jubenil Maila

Gazte Berriak - EIBAR

FOBALL-ZALETUA

- Malape - Bar Marem (bihar, 09:00)
- Baserri - Limpieza Rueda (bihar, 10:30)
- Garaj. Garcia - Adahi Eraieder (etzi, 09:00)
- Gastro Gilda - BOJ (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gipuzkoako 3. Maila

Kutturru - EIBARTARRAK

ESKUBALOIA

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Tolosa (bihar, 19:00)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Elorri Aldapa - ART. JUANTXO (bihar, 16:15)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR B - Contubi Oiarso (bihar, 15:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR C - Astigarrag. Mundarro (etzi, 11:30)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

Tres Cantos - URBAT (bihar, 17:00)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

URBAT B - CD Larraina (etzi, 14:30)

Emakumezkoen Euskal Herriko Liga

URBIAK - Askartza (gaur, 21:30)

URBIAK - DN Portugalete (bihar, 14:30)

Askartza - URBIAK (bihar, 20:30)

PILOTA

Astelena frontoia (etzi, 17:00)

Senar - Aldabe

Zabaleta - Altuna III

Mata/Martija - De la Fuente/Rezusta

GINNASIA ERITMIKOA

Gipuzkoako Banakako Txapelketa

Ipuruia kiroldegia (bihar, 10:30)

Senior eta Oinarrizko Jubenila

Nahia eta Haizeder Arguiz



SD Eibar-en bigarren taldeek (Vitoria eta Eibar B) mailaz igo dute

Zapatuan egun berezia bizi izan zen Unbeko instalazioetan, 3. RFEF Mailan jokatzeko SD Eibar-en bi taldeek, euren neurketak irabazita, mailaz igotzea lortu zutelako. Hori dela-eta, bai Vitoriak gizonezkoen mailan, zein Eibar B-k emakumezkoetan, hurrengo denboraldian 2. RFEF Mailan jokatuko dute. Denboraldi ezin bikainagoa dihardute burutzen batzuek zein besteek, eta gizonezkoen taldeak denboraldia amaitzeko lau jardunaldiren faltan liga irabaziko duela ziurtatu duen bezala, gauza bera egin du emakumezkoenak eurei hiru jardunaldi geratzen zaizkienean.

CD Vitoriak 27 partidu daramatza galdu barik, eta galdutako bakarra irailaren 23an izan zen. Unben Beasain bere multzoko bigarren sailkatuari 2-0 irabazi ondoren, 18 puntu ateratzen dizkio dagoneko Jokin Aranbarriren taldeak. Bost denboraldi dira taldea 3. Mailara jaitsi zela eta, ordutik, azken denboraldiotan taldeak bidea itxi dio atzetik datorren Eibar Urkori, azken honek, Erregionaleko Oho-rezko mailan txapeldun izan eta gero, biek SD Eibar-koak izanda, ezin dutelako maila berean kointziditu. Justu oraingoan Urko bigarren dago sailkatuta, Aretxaba-

leta liderrarengandik lau puntura bost jardunaldiren faltan; dena dela, oraindik euren artean jokatu beharko dute.

Antzerako bidea eraman du Ander Ojangurennek entrenatzen duen Eibar B emakumezkoen bigarren taldeak. Une honetan bederatzi puntuko tartea zabaldu dute Burgos multzoko bigarren sailkatuarekiko. Unbeko partiduan 6-0 irabazi zioten Bizkerreri eta, denboraldi gutzian bakarrak hiru partidu galduta, Euskal Ligatik igo ondoren maila horretan jokatu duen bigarren denboraldian lortu du beste jauzi bat ematea.

100 urpekaritza-bataio egiteko erronka hartu dute Deporrekoe

Eibarko Klub Deportiboaren men-deurrena dela eta, Urpekoen Bartzordeak 100 urpekaritza-bataio egiteko erronka jarri dio bere buruari. Euretako erdiak Ipurua kiroldegiko igerilekuan egingo dira, eta beste erdiak itsasoan. Ipuruko ekitaldia maiatzaren 11n izango da eta izena subacuaticas@deporeibar.com helbidean eman daiteke. Interesatuak 13 urte izan behar dituzte gutxienez eta aletak eta betaurrekoak beharko dituz-



te; materialik ez badute, hankaren zenbakia emateko eskatzen dute. Aipatutako 100 urpekaritza-bataiorako izen-emateari dagokionez,

antolatzaileen esanetan "jendeak izena eman ahal joango da osatzen zerranda eta, 100era iritsitakoan, itxiko dugu bera".

Mintegian izena emateko azken egunak

Ate joka dugu maiatzaren 8a eta prest dago dena euskararen sozializazio eta transmisioari buruzko mintegia burutzeko. Hizlari bikainek hartuko dute parte eta goiza bi zatitan banatuko da: lehenengo zatia teorikoagoa izango da, ikerketa, tesi eta azterketa-lanen emaitzak eta ondorioak aurkeztuko dizkigute Jaime Altuna (EHUko irakasle eta ikerlaria), Garazi Sanchez (EHUko NOR taldeko ikerlaria) eta Gari Goikoetxeak (Tolosako euskara teknikaria eta ikerlaria). Euskarak aisialdian edo esparru ez formalean duen lekua aztertuko dugu, bereziki gazteen kasuan.

Bigarren zatian Nafarroara begira jarriko gara, oztopoak handiagoak diren lurraldera, bertako praktika on interesgarrien berri jasotzeko Ibai Sueskun (Errigora eta Agerraldia) eta Esther Lakastaren (Dindaia Fundazioa) eskutik.



Garikoitz Goikoetxea



Esther Lacasta



Jaime Altuna



Garazi Sanchez



Ibai Sueskun

Maiatzaren 8an

SD EIBAR KE-aren
prentsa aretoan



Euskararen sozializazioa eta transmisioa
XIV. MINTEGIA

www.etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
943 20 09 18

- 08:45:** Materiala jaso
- 08:55:** Ongietorria eta agurra
- 09:10:** **Hizkuntzaren funbulistak. Adin, genero eta hizkuntzaren arteko orekak eta desorekak**
Jaime Altuna, EHUko irakasle eta ikerlaria.
- 10:15:** **"Gazteen online kontsumoak"**
Garazi Sánchez, EHUko NOR ikerketa taldeko ikerlaria.
- 11:00:** **"Euskararen geografia berria"**
Garikoitz Goikoetxea, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko buru eta ikerlaria.
- 11:45:** ATSEDENALDIA
- 12:20:** Begirada bat Nafarroara
- 12:25:** **"Agerraldia, euskara plazara"**
Ibai Sueskun, Errigora eta Agerraldiko kidea.
- 13:00:** **"Aisialdia eta euskara, hori gara gu"**
Esther Lakasta Perez-Itzarbe, Dindaia Fundazioko teknikaria.

BAZKARIA (aukeran): IPUR SAGARDOTEGIAN

Izena emateko



antolatzailea



laguntzaileak



kolaboratzailea





Herriko kaleak dantzaleku bihurtuko dira gaur arratsaldean

Apirilaren 29a da Dantzaren Nazioarteko Eguna. Egun horretan jaio zen Jean-Georges Noverre koreografo, berritzaile eta ikerlaria, ballet modernoaren aitzat hartzen dena, eta bere jaioteguna aprobetxatu zuten dantza bultzatzeko eta sustatzeko mundu osoan egiten diren ekitaldi eta jaialdien bitartez. Eibarren, nola ez, dantza ikur garrantzitsua da eta ospakizunak egingo dira, gaur bertan, hilaren 26an.

BIDEOA



Azken urteetako ekimenari jarraituz, herriko dantza-eskolak eta akademiak kalera irtengo dira gaur Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. 17:30ean hasita, Kezka, Koa, Biraka, Untzagako Jubilatuen Etxea, Beheko Tokia, Ballet Eibarres, Kaxa, Neledantza, flamenko taldea, Pagatxa eta Kubako saltsa egiten duen taldea herriko gune ezberdinetan egongo dira dantzan, batzuk Amañan eta beste batzuk Urkizun, eta poliki-poliki Untzagara gerturatzen joango dira bidean geldialdiak eginez.

Dantza-talde bakoitzak bere dantzak eskainiko ditu eta, guztien proposamena ikusita, mota askotako dantzak ikusteko aukera izango dugula aurreratu dezakegu. “Herrian dagoen aberastasuna azpimarratuko nuke”, aipatu du eguazten goizean egin zen aurkezpenean Josu Mujika Biraka dantza eskolako zuzendariak. “Euskal dantza, dantza garaikidea, latinoak, flamenkoa, urbanoa...”, zerrendatu zituen Marta Prol Kaxa guneko kideak.

Zentzu horretan, “erronka konplikatuak” dela deritzo Oier Araolaza Kezka dantza taldeko kideak. Izan ere, “ez gaude ohituta gure dantza motakoak ez direnekin plaza partekatuzera. Kodigo ezberdinak erabiltzen ditugu, baita babes musikal ezberdinak ere. Beraz, erronka handia da eta, era berean, gustu handia”, azaldu zuen. Horrekin lotuta, zera gehitu zuen: “Guk zuzeneko musikarekin egiten dugu dantza, eta gure musika ez da gazteek edo gizarteak orokorrean entzuten duen musika. Horregatik, gure herrian arrotzak garelako esaten dugu, euskararekin gertatzen denaren antzera”.

Dantzariak gaur izango duten beste erronka bat kalean dantza egitea izango da. Izan ere, aretoetan edo bestelako espazio itxietan dantza egi-

tera ohituta daude eta kalean beste espazio, neurri eta giroetara ohitu beharko dira, “entseatu barik” azpimarratu zuten. “Bertara iritsi eta dantza egingo dugu, erreferentziarik gabe, eta jende askoren aurrean gainera”, aipatu zuen Mujikak. Nerea Lodosa Neledantzako zuzendariaren ustez, “demaseko ikasketa izango da dantzarentzat”.

Herri guztia dantzan

Aurten hirugarren aldiz egingo da Dantzaren Nazioarteko Egunaren ospakizun hau eta aurreko bi edizioek demaseko arrakasta izan dute. Jende ugari bildu da herriko txoko ezberdinetan ikuskizunak ikusteko eta aurten ere, eguraldia lagun, antzeko zerbeit gertatuko dela aurreratu daiteke. Gainera, publikoa ez da ikusle hutsa izango, dantzen ondoren, 20:30ak inguruan, Laket taldearen eskutik erromeria egongo delako Untzagan. “Erromerian edonork egin dezake dantza eta, hain zuzen ere, horrek ematen dio zentzua egun horri. Izan ere, ez da dantzarien eguna, dantzaren eguna baizik”, aipatu zuen Araolazak. “Ume guztiek egiten dute dantza, batzuk berba egiten hasi baino lehenago hasten dira. Adinean aurrera egin ahala, mutilek bereziki, dantza lagatzen dute, jarduera femeninoa delakoan, baina denoi gustatzen zaigun jarduera da. Dantza, gainera, ez dugu arte bezala bakarrik ulertu behar, beste funtzio batzuk dituelako, eta hori egiteko ez dago ikastera edo entrenatzera joan beharrik. Beraz, erromeriak amaiera bikaina emango dio egunari”. Antzeko bidetik azaldu zitzaigun Kaxako Prol ere: “Dantza gure bizitzaren zati oso garrantzitsua da. Ez da jarduera fisiko hutsa, baizik eta lagun arteko ekintza bat. Gauza asko partekatzen dira, emozioak besteak beste, eta osasun mentala lantzeko eta zaintzeko ekintza oso garrantzitsua da”.

1.200 eibartar inguru ibiltzen dira astero-astero dantzan Eibarren eta dantzak gurean duen indarra erakusteko adibidea izango da barixakukoa. Gainera, adin ezberdinetako dantzariak arituko dira bertan, umeak zein jubilatuak, “mundu guztiak egiten duela dantza. Musika sentitu eta mugitu besterik ez da egin behar”, eguazteneko aurkezpenean esan zuten. “Polita da adin eta genero ezberdineko pertsona askok parte hartzen duten horrelako jarduera bat herriaren aurrean egitea”, Prolen ustez.



Talde dantzak 17:30ean hasiko dira, Amañan eta Urkizun, eta amaieran Untzagan batuko dira



Eguazten goizean aurkeztu zuten Nazioarteko Dantzaren Eguna ospatzeko egitaraua. EKHI BELAR



Zuhaitz Gurrutzagaren “FutbolisTOK” bakarrizketa

Datorren asteko barixakuan (maiatzak 3), *Futbolis-TOK* izenburuko bakarrizketa aurkeztuko du Zuhaitz Gurrutzagak, 20:00etan Coliseo antzokian. Realeko jokalarari ohiaren bakarkako bigarren lana den honetan, bere futbolari garaiko bizipenak azaltzen ditu, umorez, bai eta NOC (Nahasmendu Obsesibo-Konpultsiboa) izeneko gaixotasuna ere. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Boikot eta Xiberoroots arituiko dira Amañako Jaietan

Amañako Jai Batzordeak nahiko aurreratuta du dagoneko uztailaren lehen asteburuan (uztailak 5, 6 eta 7) auzoak biziko dituen jaietako 46. edizioako egitaraua. Boikot Vallecás-eko rock taldea eta Iparraldeko Xiberoroots izango dira aurten barixakuko kontzertuetako protagonistak, Mugi Panderoa eta zapatuko kontzertua emango duen Lisker Eibarko taldeekin batera. Jaietan ez dira faltako bestelako ekitaldiak, “adin guztietakoek goza dezaten”, Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-zen emanaldia tarteko.



Interneti buruzko bi hitzaldi antolatu dituzte gurasoentzat

Internet, pantailak, bideojokoak, sare sozialak... horiek guztiak nola kudeatu gurasoei azaltzeko, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bi hitzaldi antolatu ditu. Maiatzaren 6an (LH-n seme-alabak dituzten gurasoentzat) eta 9an (DBH eta Batxilergoan seme-alabak dituztenentzat) izango dira, Portaleko areto nagusian, 18:00etan, eta bertara joateko izen-ematea maiatzaren 2an itxiko da.



“Susto” kale-antzerki ikuskizuna Errebal Plazan

Maite Guevararen taldeak *Susto* antzezlanaren aurkeztuko du martitzen gauean, 22:00etan Errebal Plazan. Txefo Rodriguez, Joseba Uribarri, Haizea Aguila eta Maite Guevara aktoreak protagonista dituen lan honetan, gaztelu beldurgarri batean bizi diren lau komedianteren gorabeherak kontatzen ditu. Kulturak antolatu duen saioa ikusteko ez da sarrerarik ordainduko.



Berrogeita hamar txistulari batuko dira bihar Eibarko IV. Txistu Eguna ospatzeko

Usartza Txistulari Taldeak antolatuta, Eibarko IV. Txistu eguna ospatuko da bihar Eibarren. Txistularien berbetan, “azken urte hauetan egin dugun bezala, Eibarko auzoak eta kaleak txistuaren musikarekin beteko ditugu”.

Eibarko taldearekin batera, Elgoibar, Ermua, Deba, Ondarru eta Bilboko txistulariak arituko dira biharko jaietan. Guztira 50 bat txistulari elkartuko dira Untzagan, 17:00etan, bertatik herriko auzo ezberdinetara abiatzeko. Amaña, Ipurua, Legarre, Urki, Azitain, Barrena eta beste hainbat tokitan taldeka kalejiran ibili eta gero, 19:00ak inguruan berriz ere Untzaga plazan elkartuko dira txistulari guztiak, taldearen argazkia egiteko. Jarraian, erdiko kaleetan ibiliko dira, 21:00ak arte. Eguraldi euritsua balitz, kalejira egin beharrean, Untzagako arkupe ezberdinetan, Toribio Etxebarria kalean eta Errebalen joko lukete.

Txistua bizirik mantentzeko lanean

Eibarren ez ezik, Txistulari Eguna herri askotan ospatzen da, toki ezberdinetako txistulariak elkartu eta txistuaren doinuak zabaltzeko asmoz: “Gaur egun Euskal Herri osoan txistulari kopurua jaisten ari da, eta ez gaude momentu onena pasatzen”, diote. Zentzu horretan, Usartza Txistulari Taldeko kideak Eibarren hainbeste urtetan lortutako harrobiari eusten eta, ahal duten neurrian, handitzen ahalegintzen dira. Ohartarazi dutenez, “txistua Euskal Herriko instrumentu garrantzitsu bat da, eta ezin dugu galtzen utzi”.

Biharko emanaldiarekin, txistua kalean ikustez gain, gurasoak eta umeak instrumentu hau ezagutzera animatu nahi dituzte, “denon artean Euskal Herriko kulturaren zati bati eusteko eta disfrutatzeko”.



Mikel Gaztelurrutia Trioren kontzertua maiatzaren 4an

Mikel Gaztelurrutiaren hirugarren diskoa, Errabal Jazz zigilupean argitaratutako “Black on White”, aurkezteko kontzertua hartuko du Coliseok datorren asteburuan, maiatzaren 4an 20:00etan. Musikoaren berbetan, “izenburuak musika beltz afroamerikarra eta europar kulturako musikaren arteko erlazioa isladatu nahi du. Estiloz eklektikoa, swing, afro Cuban, pop, reggae, kontenporaneo, sustraiaun musika, Drum & bass eta Rhodes soinuak entzun ditzazkegu bertan. Konposaketa eta moldaketa propioz osaturiko bilduma da”. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Kontzertu korala domekan

Domekan belaunaldiarteko kontzertu korala eskainiko dute herriko lau taldek elkarrekin, 12:30ean Coliseo antzokian. Juan Bautista Gisasola Korua, Eibarko Koro Gaztea, Sostoa eta Untzagako Korua arituko dira kantuan, eta sarrera dohainik da (gonbidapenak Kutxabank-en bidez edo gaur arratsaldean Coliseoko leihatilan eskura daitezke).



Izengabeak musika lehiaketarako izen-ematea luzatu dute

“Izengabeak” musika-lehiaketan izena emateko epea egun batzuk luzatzea erabaki du Udalak. Izena emateko plataforman arazo tekniko txiki batzuk izan dituzte, eta horren eraginez lehiaketatik kanpo talderik ez geratzeko, maiatzaren 1era arte (egun hori barne) luzatu dute izen-ematea. Informazio guztia eta izena emateko orria Udalaren webgunean aurkituko dituzue.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5		9		1			
2					8	9	
	3	1	9				
		7		3		2	6
9	7		2	4			
				2	8	3	
		4	1				7
			5	6	1		

I	B	R	E	R	E	R	E	R	E
L	E	R	K	E	L	E	R	E	R
O	C	E	R	E	P	H	L	O	I
C	E	L	P	R	C	O	L	O	
F	G	L	I	B	S	O	N	O	
O	Z	O	E	R	E	R	O	I	V
C	O	R	P	H	E	L	L	A	
C	L	E	R	E	L	O	P	Z	
Z	A	R	E	L	H	O	R	E	

soluzioa


**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA


		7				3	4
8				9			
	4	5	8				7
				4	1		5
		9				4	
4			3	2			
	3				7	9	8
				1			3
	7	2				6	

soluzioa

S	A	T	E	T	A	T	E		
R	E	R	E	L	O	P	Z		
H	E	R	E	R	O	D	O		
L	E	R	E	R	O	D	O		
O	P	Z	O	R	E	R	O		
E	C	E	L	P	R	O	D		
R	E	L	E	R	O	D	O		
R	E	L	E	R	O	D	O		
P	R	E	R	A	D	I	R		
P	R	E	R	E	L	A	R		



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A
K**



Apirilak 26 / Maiatzak 2

BARIXAKUA 26


BARIXAKUAK JOLASIAN
17:00/18:00 Jolasak 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat, euskaraz. Urkizuko parkea.

DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA
17:30 Herriko dantza eskola eta taldeen erakustaldiak. Untzaga, Ego Gain, Torrekuako parkea, Urkizuko parkea, Errebal Plaza. Jaia amaitzeko erromeria, Laket taldearekin. Untzaga.



ZAPATUA 27

EIBARKO IV. TXISTU EGUNA
17:00 Txistulari guztiak Untzagan elkartu, eta jarraian auzoetatik (Amaña, Ipurua, Legarre, Urki, Azitain, Barrena...) kalejiran ibiliko dira, taldeka.
19:00 Argazki ofiziala. Untzaga.
19:30/21:30 Kalejira, herriko erdialdetik, tronpetista eta soinu-joleek lagunduta



ZAPATUKO IPUINA
18:00 "Ametsen mundua" (Patata Tropikala). Doan (aurretik izena eman behar da). Portalea (areto nagusia).



SANTA KURUTZEKO JAIAK

20:30 Bertso-afaria Xabat Illarregi eta Iban Urdangarin bertso-lariekin. Ixua jatetxea.



DOMEKA 28

MUSIKA
12:30 Belaunaldiarteko kontzertu korala. Juan Bautista Gisasola Korua, Eibarko Koro Gaztea, Sostoa eta Untzagako Korua. Doan (gonbidapenarekin). Coliseo.

MANIFESTAZIOA
13:00 "¡Stop genocidio! Palestina askatu!". Eibarko Gerrarik Ez eta Eibar Palestinarekin taldeek antolatuta. Untzaga.



MARTITZENA 30

ANTZERKIA
22:00 "Susto" (Cia. Maite Guevara). Doan. Errebal Plaza.



ERAKUSKETAK

Apirilaren 28ra arte:
 - "LANAREN FRUITUA", Eibar BHI-IES Eibarko ikasleen artelanak. (Portalea).
 - **EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA**. (Portalea).

Maiatzaren 8ra arte:
 - "LGTBIQ+fobia gorroto delitu eta diskurtsoak". (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

26an (BARIXAKUA)
KONTZERTUA
20:30 / Ermua Antzokia Bengo
27an (ZAPATUA)
KONTZERTUA
20:30 / Lobiano Gunea Osho
28an (DOMEKA)
ANTZERKIA
20:30 / Ermua Antzokia "Almazanean" / Txalo

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **27an:** 19:45, 22:30
- **28an:** 20:00
- **29an:** 19:30

“Las cosas sencillas”
KOMEDIA



2023/Frantzia/95'
Zuzendaria: Eric Besnard
Aktoreak: Lambert Wilson,
Grégory Gadebois, Marie Gillain
Drama/Bizitzaren hausnarketa

2 ARETOA

- **27an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **28an:** 17:00, 20:00
- **29an:** 19:30

“Pequeñas cartas...”
KOMEDIA



2023/Erresuma Batua/102'
Zuzendaria: Thea Sharrock
Aktoreak: Olivia Colman,
Jessie Buckley, Anjana Vasan
Komedia beltza/Errealitatea

ANTZOKIA

- **27an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **28an:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **29an:** 19:30

“Civil War”
AKZIOA



2024/AEB/109'
Zuzendaria: Alex Garland
Aktoreak: Kirsten Dunst,
Jefferson White, Wagner Moura
Thriller-a/Distopia/Politika

ANTZOKIA

- **27an:** 17:00
- **28an:** 17:00

“Dragoi-jagolea”
ANIMAZIOA



2024/Espainia/99'
Zuzendaria: Salvador Simó
Abenturak/Herensugeak

FUNEUSKADI
Funerariak

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EREMITARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Karlson, s/n. SIGMA Industrialdea (Otasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Erreuko bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Susana Orrantia Gonzalez

1. URTEURRENA
2023/04/29

**“Beti zaude
gurekin”**

MAITE ZAITUGU
- ETXEROAK -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NAIKE**, atzo 5 urte egin zenduazten-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Lur, Oinatz eta Bernaten partez.



Zorionak, **EKAIN**, txapeldun, atzo 5 urte bete zenduazten-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AITZ**, eguaztenian 3 urtetxo bete zenduazten-eta! Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Aralen partez!



Zorionak, **AIMAR**, maiatzaren 2xan 7 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi-haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak, **LUR**, 8 urte! Pozik bizi! Askoko maite zaittugu.



Zorionak, **DANEL!!!** Atzo 3 urtetxo bete zenduazten-eta!!! Musu erraldoi bat gure piratari!!! Batez be, Nahiaren partez.



Zorionak, **IRATI**, hillaren 22xan 10 urte egin zenduaztelako. Musu asko famelixaren partez.



Gaur 6 urte beteko dozuz, **MARTINA!** Zorionak! Musu bat etxekuen eta, batez be, Luca, Sofia, Jon, Markel eta Unaxen partez!



Zorionak, **ANDER**, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **URKO!!!** Gaur 10 urte beteko dozuz-eta! Besarkada eta patxua famelixa guztiaren partez! Aupa, txapeldun!



Zorionak, **IMANOL** eta **OSKAR**, urtiak bete dozuez-eta. Musu eta besarkada haundi bana lagunen partez.

Bixente Arrizabalaga Alberdi "Txertudi"



1. URTEURRENA
2023/04/24

Nahiz eta gure artean ez egon,
BETI GURE GOGOAN.

- ZURE FAMILIA -

Juan Jose Goin Iriondo

2024/04/21



"Seme, anai-neba,
osaba eta lagun
zoragarria izan zara"



- ETXEEKOAK -

Iragarki laburrak

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA**1.2. Errentan**

- Pisu alogagai Eibarko erdigunean. 2 logela. Igoailuarekin. Garajea aukeran etxepean. 631419458.
- Apartamentu edo pisu txikia alokatuko nuke Eibarren. 688666220.

3. LOKALAK**3.2. Errentan**

- Lokala alogagai I. Ojanguren lean. 40 m2. Komunarekin. Aproposa bulegorako, almazenerako, e.a. Prezio onean. 676556691. Vicente.

4. LANA**4.1. Lan bila**

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arartsaldez edo gauzez. Esperientzia. 655094780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko arartsaldez edo gauzez. Esperientzia. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 658657807.
- Neska eskaintzen da nagusiak (habilitazioarekin) edo umeak zaintzeko. Erreferentziak eta esperientzia. 604120104.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez eta ospitalean ere) eta pegorak garbitzeko. 679912841.

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta garbiketak egiteko. Interna. 631055859.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna. 631545774.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 631759107.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602335470.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612201719.
- Neska eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. 631537430.
- Emakumea eskaintzen da arartsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko: etxean, obretan... 638421827..

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Astebururako edo jornada erdirako. 661955980.
- Pertsona behar da uztailean goizetik haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskaraz jakitea baloratuko da. 670461346.
- Ermuko hortz-klinika baterako auxiliarra edo administraria


- behar da uztailearen amaiera arte (baja bat kubritzeko). Goizez. 653184885.
- Ermuko Aierra Estilistak ileapaintzailea behar du. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. 626524949. Bidali curriculum: ayerravg@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA**5.2. Eskaintzak**

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK**6.1. Salgai**

- Monitorea salgai. Kalitate onekoa eta ia berria (Monitor gaming- HP 25x, 24.5", Full HD, 144 Hz, 1 ms). Prezioa: 100 euro. 649105442. Elena.



Ikasketak: Mekatronika
Industrialia eta Mekatronikako
espezializazioa.

Enpresa duala: Danobat.
Lanbide Heziketa

Nor da Haritz?

Haritz Eibar Aranbarri naiz, elbartarra, 20 urte ditut, botailergoa ikasi nuen eta ondoren IMHn goi-mailako Mekatronika Industrialia eta Mekatronikako espezializazioa ikasi ditut. Zikloan eta espezializazioan duala Danobaten egin dut. Nire zaletasunak batez ere eskubaloia eta gimnasia dira.

Zergatik aukeratu zenuen ikasketak horiek egitea?

Beti gustatu izan zait industria mundua, eta botailergoa bukatzean hainbat ikastaro egin ondoren, Mekatronika interesgarriena zela erabaki nuen.

Zergatik aukeratu zenuen IMHn ikastea?

Ate irekietan egon nintzen eta inguruko haberena iruditu zitzaiden. Nere ustez, instalazioak oso onak dira.

Zein da zure iritzia orain arte IMH-n eta duallean ikasi eta ibili izan dituzun esperientziari buruz?

Hiru urte hauetan asko ikasi dut. Dualarekin erabiltzen den sistema oso egokia iruditzen zait, modu honetan lan mundua nolako den ikusteko aukera ematen diote eta eskolan ikusten ez dituzun gauzak ikas ditzakezu.

Esan zehazki zuretzat zein den IMHn ikasten pasatoko garrantzi gehien gustatu zaitzuna?

Dagoen giroa. Lagun onak egin ditut eta asko ikasi dut. IMH lan egiteko era asko gustatu zait, osasuna eta eremangarria da.

Ze asmo duzu datorren urterako?

Humengo urtean Danobaten montadore bezala jarraitzea gustatuko litzaidake. Orain arte izan dudun esperientzia oso ona izan da eta lan egiteko dagoen giroa asko gustatzen zait.

Zer esango zenuke zurea moduko zikloak ikasteko zailtasun dagoen pertsona bati?

Mekatronika dauden industria moduletatik esperu gehien lantzen dituzena dela esango nuke, gai guztiak ikusten baitira (mekanika, elektronika, hidraulika, daierua...). Industriako mundua gustatu baduzu, aukera oso ona dela esango nuke. Ikastea era entretengarria da baita ere, nahiko praktikoa delako.

Informazio Saioak

Maiatzak 11 - 11:00
Maiatzak 15 - 17:00





Begitik ahora, ahotik belarrira, kateari eutsiz

zarelakopara

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskarari elkarteak